

## KOSTUEN EGITURA

Kostu finkoak Webgunearen hosting-a, lokalaren alokairua, eta elektrizitatea dira. Xabier eta Jonen beraien Informazioa prozesatzeko ekipamendua ekarri dute lokalera, kostuak txikitzeko asmoarekin. Hasieran beste kostu bat izan dugu, 3D inprimagailua erostea, kalitatezko inprimagailu bat erosiko genuke, 500€ ingurukoa.

Kostu aldagarriak, Inprimagailuaren materialak dira, hau da, eskariaren arabera aldatzen direnak. Materialak Kiloka erosten dira, eta kiloak 15€-tik 50€-ra arteko tartea izan dezake, kilo batekin 75 funda inguru saldu al dira. Materialak eskariaren arabera erosiko dira.

Hasteko, kalitatezko, bertako domeinu bat kontratatuko genuke, eta gure iritziz.eus domeinua da aukerarik gomendagarriena, domeinu hau, merkea izan ez arren kalitatezkoa da eta gure enpresa Web orrian oinarritzen denez garrantzi handia eman diogu zati horri, domeinu honek 80€-ko gastua izango luke urtero.

Alokairuak, bestalde, 300€-ko kostua izango luke, ez litzateke lokal komertzial bat izango, beraz, kostua merketu egingo litzateke.

